ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2024ko otsailaren 7a, asteazkena • 16 zk.

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren 61/2024 Foru Agindua, otsailaren 1ekoa. Onestea 721 eredua ("Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena") eta ezartzea hura aurkezteko baldintzak eta prozedura**

2023rako zerga neurriei buruzko abenduaren 23ko 24/2022 Foru Arauak, "Zerga iruzurraren aurka borrokatzeko tributu neurriak" izeneko IV. tituluan, f) letra gehitzen dio Hemeretzigarren Xedapen Gehigarriari, zeina Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean jasota baitago, atzerrian kokatutako txanpon birtualak edukitzeari buruzko informazio betebehar berri bat ezartzeko, edukitze eta operatibo horretatik erator daitezkeen zerga egitateen zerga kontrola hobetze aldera.

Era berean, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 19ko 49/2023 Foru Dekretuak 23.bis artikulu berri bat gehitzen dio, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduari, kontu, eragiketa eta aktibo finantzarioei buruz eta atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharra arautzen duenari. Bertan arau bidez garatzen du atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruz informatzeko betebeharra.

Horregatik guztiagatik, foru agindu honen xedea da 721 eredua onestea. Horren bidez, zergapekoek modu telematiko hutsean aitortu beharko dituzte atzerrian kokatutako txanpon birtualak.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

**1. artikulua. Onestea 721 eredua ("Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena")**

Onesten da 721 eredua, "Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena". Urtero aurkeztu beharko dute aitorpena egitera behartuta daudenek, eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailera bidali beharko dute, 5. artikuluan jasotako prozedura, formatu eta diseinuaren arabera, eta foru agindu honen eranskinean aipatzen den edukiarekin.

**2. artikulua. 721 eredua ("Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena") aurkezteko beharra dutenak**

721 eredua aurkeztu behar dutenak abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuaren bidez onartutako kontu, eragiketa eta aktibo finantzarioei buruz eta atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruz informatzeko betebeharra arautzen duen Erregelamenduaren 23 bis artikuluaren 1. apartatuan zehaztutakoak dira.

**3. artikulua. 721 ereduaren edukia ("Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena")**

721 ereduan foru agindu honen eranskinean jasotako informazioa aitortu beharko da, Erregelamenduaren 23.bis artikuluan jasotakoaren arabera. Erregelamendu horrek kontu, eragiketa eta aktibo finantzarioei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen du, bai eta atzerrian kokatutako ondasun eta eskubideei buruzkoa ere, atzerrian kokatutako txanpon birtualei dagokienez, baldin eta aitortu beharra badute.

**4. artikulua. 721 eredua aurkezteko epea ("Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena")**

721 eredua urtero aurkeztuko da, eman beharreko informazioari dagokion urtearen hurrengo urteko urtarrilaren 1etik martxoaren 31ra bitartean.

**5. artikulua. 721 eredua aurkezteko modua ("Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena")**

721 ereduari dagozkion aitorpenak telematikoki aurkeztea nahitaezkoa izango da behartutako guztientzat.

Aitorpenen aurkezpen telematikoa urriaren 6ko 32/2020 Foru Dekretuaren 3. artikuluaren 2. apartatuan ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

AZKEN XEDAPENA

Foru Agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta lehen aldiz aplikatuko da 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera aurkezten diren informazio aitorpenetan, 2023ko informazioari dagokionez.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko otsailaren 1a

*Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*
*ITZIAR GONZALO DE ZUAZO*

*Ogasun zuzendaria*
*MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

**ERANSKINA • ANEXO**

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena**
Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero

**721**

**URTEKO INFORMAZIO AITORPENA** ■ DECLARACIÓN INFORMATIVA ANUAL

**1. orria** ■ Página 1

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila** **Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

## 1 IDENTIFIKAZIOA ■ IDENTIFICACIÓN

| **IFZ** ■ NIF | **Abizenak eta izena/ Sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre / Razón social |
|---|---|
| | |

**Aitorpenaren identifikazio zk.**
N.º identificativo de la declaración — 900

## 2 SORTZAPENA ■ DEVENGO

**Ekitaldia**
Ejercicio

**Epealdia**
Período

## 3 AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA ■ DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA

**Ordezko aitorpena**
Declaración sustitutiva — 901

**Aitorpen osagarria**
Declaración complementaria — 901

**Aurreko aitorpenaren identifikazio zk.**
N.º identificativo de la declaración anterior — 902

## 4 HARREMANETAN JARTZEKO PERSONA ■ PERSONA CON QUIEN RELACIONARSE

**Abizenak eta izena**
Apellidos y nombre — 11

**Telefonoa**
Teléfono — 12

**Helbide elektronikoa**
Correo electrónico — 13

## 5 LEGEZKO ORDEZKARIA ■ REPRESENTANTE LEGAL

**Legezko ordezkariaren IFZ**
NIF representante legal — 10

RE. 24/029

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena**
Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero

**721**

**URTEKO INFORMAZIO AITORPENA** ■ DECLARACIÓN INFORMATIVA ANUAL

**2. orria** ■ Página 2

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila** **Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**IDENTIFIKAZIOA** ■ IDENTIFICACIÓN

| **IFZ** ■ NIF | **Abizenak eta izena/ Sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre / Razón social |
|---|---|
| | |

**XEHETASUN ERREGISTROKO DATUAK** ■ DATOS REGISTRO DETALLE

**Xehetasun erregistroko identifikatzailea**
Identificador registro detalle — 100

**XEHETASUN ERREGISTROA** ■ REGISTRO DETALLE

**Aitortzailearen izaera**
Condición declarante — 101

**Pertsona / Erakunde babeslearen identifikazioa**
Identificación persona / Entidad salvaguarda

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 103 | **IFZ** ■ NIF | 102 | **Abizenak eta izena/ Sozietatearen izena** ■ Apellidos y nombre / Razón social | | |
| 104 | **Zerga egoitza dagoen herrialdea** País de residencia fiscal | 105 | **Egoitza herrialdeko identifikazioa** Identificación en el país de residencia | 106 | **Egoitza herrialdeko identifikazio zk.** Nº de identificación en el país de residencia |

**Erakunde babeslearen helbidea**
Domicilio entidad salvaguarda

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 110 | **Helbidea dagoen herrialdea** País del domicilio | 111 | **Udalerria** ■ Municipio | 112 | **Bide publikoaren izena** ■ Nombre vía pública |
| 113 | **Numerazioa** ■ Numeración | 114 | **Posta kodea** ■ Código postal | 115 | **Osagarria** ■ Complemento |

**Gako publikoaren identifikazioa**
Identificación clave pública

| | |
|---|---|
| 120 | |

**Gainerako datuak**
Resto de datos

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 121 | **Txanpon birtual mota** ■ Tipo moneda virtual | 122 | **Hasierako Txanpon kop.** ■ Nº monedas inicio | | |
| 123 | **Jasotako txanpon kop.** ■ Nº de monedas recibidas | 124 | **Bidalitako txanpon kop.** ■ Nº de monedas enviadas | | |
| 125 | **Amaierako txanpon kop.** ■ Nº de monedas final | 126 | **Txanponen balioa** ■ Valor de monedas | | |
| 127 | **Balioaren kotizazioa** ■ Cotización valor | 128 | **Baldintzaren amaiera data** ■ Fecha fin condición | | |
| 129 | **Txanponen saldo birtuala** ■ Saldo monedas virtual | 130 | **Erregistro data** Fecha registro | 131 | **Txanpon birtualaren jatorria** Origen moneda virtual |

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava
www.araba.eus

**Atzerrian kokatutako txanpon birtualei buruzko informazio aitorpena**
Declaración informativa sobre monedas virtuales situadas en el extranjero

**721**

**JARRAIBIDEAK** ■ INSTRUCCIONES

**Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila** **Departamento de Hacienda, Finanzas y Presupuestos**

**LABURPEN ORRIA**

**1. IDENTIFIKAZIOA**

IFZ: Pertsona edo erakunde aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) jarri behar da.

ABIZENAK ETA IZENA/SOZIETATEAREN IZENA:

- Pertsona fisikoa bada, honela idatzi behar dira izen-abizenak: lehenengo abizena, gero bigarrena eta azkenik izen osoa, hurrenkera honexetan. Hartzailea 14 urtetik beherako adingabea bada, beraren abizenak eta izena idatzi behar dira.
- Pertsona juridikoa edo errenta egozketaren araubideko erakundea bada, erakundearen sozietate izena edo izendapen osoa idatzi behar da, anagramarik gabe.

(900) laukia AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA: Aitorpenari dagokion identifikazio zenbakia jarriko da. Jarri beharreko identifikazio zenbakia sekuentziala izan behar da, eta horren lehenengo hiru digituak 721 kodeari dagozkionak izango dira.

**2. SORTZAPENA**

EKITALDIA: Aitorpenaren zerga ekitaldiaren lau zifrak jarri beharko dira

EPEALDIA: Urteko aldizkotasuna.

**3. AITORPEN OSAGARRIA EDO ORDEZKOA**

Aparteko kasuetan, bigarren aitorpena edo geroagoko beste bat aurkeztuz gero, lauki hauetako bat bete behar da nahitaez:

- (901) laukia ORDEZKO AITORPENA. Jarriko da baldin eta aitorpena lehenago aurkeztutako ekitaldi bereko beste aitorpen bat oso-osorik baliogabetu eta ordezteko aurkezten bada. Ordezko aitorpen batek aurreko aitorpen bakar bat baino ezin du baliogabetu.
- (901) laukia AITORPEN OSAGARRIA. Jarriko da baldin eta aitorpen hau aurkeztearen xedea lehenago aurkezturiko ekitaldi bereko beste aitorpen batean agertu behar izan ziren baina hartan jarri gabe geratu ziren erregistroak sartzea bada.
- (902) laukia AURREKO AITORPENAREN IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA. "Aitorpen osagarria" edo "Ordezko aitorpena" laukietan marka bat jarri bada, ordeztutako edo osatutako aitorpenaren identifikazio zenbakia idatzi behar da.

**4. HARREMANETAN JARTZEKO PERTSONA**

Harremanetarako pertsonaren datuak:

- (11) laukia DEITURAK ETA IZENA
- (12) laukia TELEFONOA
- (13) laukia HELBIDE ELEKTRONIKOA

**5. LEGEZKO ORDEZKARIA**

- (10) laukia LEGEZKO ORDEZKARIAREN IFZ. Aitortua 14 urtetik beherakoa bada, beraren legezko ordezkariaren (aita, ama edo tutorea) identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar da.

**HOJA RESUMEN**

**1. IDENTIFICACIÓN**

NIF: Se hará constar el número de identificación fiscal (NIF) de la persona o entidad declarante.

APELLIDOS Y NOMBRE/ RAZÓN SOCIAL:

- Para personas físicas, se consignará el primer apellido, el segundo apellido y el nombre completo, en este mismo orden. Si el perceptor/a es un/a menor de 14 años, se consignarán en esta casilla los apellidos y nombre del/de la menor de 14 años.
- Para personas jurídicas y entidades en régimen de atribución de rentas, se consignará la razón social o la denominación completa de la entidad, sin anagramas.

Casilla (900) NÚMERO IDENTIFICATIVO DE LA DECLARACIÓN: Se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración. El número identificativo que habrá de figurar será un número secuencial cuyos tres primeros dígitos se corresponderán con el código 721.

**2. DEVENGO**

EJERCICIO: Se hará constar las cuatro cifras del ejercicio fiscal al que corresponde la declaración.

PERIODO: Periodicidad anual.

**3. DECLARACION COMPLEMENTARIA O SUSTITUTIVA:**

En el caso excepcional de segunda o posterior presentación de declaraciones, deberá cumplimentarse obligatoriamente una de las siguientes casillas:

- Casilla (901) DECLARACIÓN SUSTITUTIVA: Se consignará si la presentación tiene como objeto anular y sustituir completamente a otra declaración anterior del mismo ejercicio. Una declaración sustitutiva solo puede anular a una única declaración anterior.
- Casilla (901) DECLARACIÓN COMPLEMENTARIA: Se consignará si la presentación de esta declaración tiene por objeto incluir registros que, debiendo haber figurado en otra declaración del mismo ejercicio presentada anteriormente, hubieran sido completamente omitidas en la misma.
- Casilla (902) NÚMERO IDENTIFICATIVO DE LA DECLARACIÓN ANTERIOR: En el caso de que se haya consignado una marca en la casilla "Declaración complementaria" o en la "Declaración sustitutiva", se consignará el número identificativo correspondiente a la declaración a la que complementa o sustituye.

**4. PERSONA CON QUIEN RELACIONARSE**

Datos de la persona con quién relacionarse:

- Casilla (11) APELLIDOS Y NOMBRE
- Casilla (12) TELÉFONO
- Casilla (13) CORREO ELECTRÓNICO

**5. REPRESENTANTE LEGAL**

- Casilla (10) NIF REPRESENTANTE LEGAL. Si el declarado/a es menor de 14 años, se consignará en este campo el número de identificación fiscal de su representante legal (padre,

1/4

RE. 24/032

Halaber, aitortzailea persona juridiko bada, erakundearen legezko ordezkariaren identifikazio fiskaleko zenbakia adierazi behar da

**BARRUKO ORRIAK**

**XEHETASUN ERREGISTROKO DATUAK**

— (100) laukia XEHETASUN ERREGISTROKO IDENTIFIKATZAILEA. Sartutako erregistro bakoitza identifikatzen duten letrak eta/edo zenbakiak jasoko dira.

**XEHETASUN ERREGISTROA**

— (101) laukia AITORTZAILEAREN IZAERA. Ondoko aukera hauetakoren bat jarri behar da, aitortzailea zein izaeraz agertzen den txanpon birtualean:
- Titularra
- Baimendua
- Onuraduna
- Erabiltzeko ahalduna
- Benetako titulartasunaren beste era batzuk, apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4.2.artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

**PERTSONA/ERAKUNDE BABESLEAREN IDENTIFIKAZIOA**

— (102) laukia ABIZENAK ETA IZENA/SOZIETATEAREN IZENA. Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko eta txanpon birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen izen-abizenak edo izen soziala edo izen osoa adieraziko da.

— (103) laukia IFZ. IFZ izanez gero, gako kriptografiko pribatuak babesteko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen IFZren identifikatzailearekin jakinaraziko da.

— (104) laukia ZERGA EGOITZA DAGOEN HERRIALDEA. Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko eta txanpon birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen zerga egoitzaren herrialdea adieraziko da.

— (105) laukia EGOITZA HERRIALDEKO IDENTIFIKAZIOA. Honako aukera hauetako bat jasoko da, pertsona edo erakunde babeslearen identifikazio motaren arabera:
- IFZ-BEZa
- Pasaportea
- Egoitza duen herrialde edo lurraldeak emandako nortasun agiri ofiziala.
- Egoitza ziurtagiria
- Beste frogagiri bat

— (106) laukia EGOITZA HERRIALDEKO IDENTIFIKAZIO ZENBAKIA. Egoitza herrialdeko identifikazio zenbakia adieraziko da.

**ERAKUNDE BABESLEAREN HELBIDEA**

— (110) laukia HELBIDEA DAGOEN HERRIALDEA. Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko eta txanpon birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen egoitza dagoen herrialdea adieraziko da.

— (111) laukia UDALERRIA. Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko eta txanpon birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen egoitza dagoen udalerriaren izena adieraziko da.

— (112) laukia BIDE PUBLIKOAREN IZENA. Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko eta txanpon birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen helbidearen bide publikoaren izena adieraziko da.

madre o tutor/a). Asimismo, en el caso de que el declarado/a sea persona jurídica deberá hacer constar el NIF del representante legal de la entidad.

**HOJAS INTERIORES**

**DATOS REGISTRO DETALLE**

— Casilla (100) IDENTIFICADOR REGISTRO DETALLE. Se consignarán letras y/o números que identifiquen cada uno de los registros incluidos

**REGISTRO DETALLE**

— Casilla (101) CONDICIÓN DECLARANTE. Se consignará una de las siguientes opciones en función de la condición con la que figura el o la declarante de la moneda virtual:
- Titular
- Autorizado/a
- Beneficiario/a
- Con poder de disposición
- Otras formas de titularidad real conforme a lo previsto en el artículo 4.2 de la Ley 10/2010, de 28 de abril.

**IDENTIFICACIÓN PERSONA/ENTIDAD SALVAGUARDA**

— Casilla (102) APELLIDOS Y NOMBRE/RAZÓN SOCIAL. Se consignará el nombre y apellidos o razón social o denominación completa de la persona o entidad que proporciona servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales.

— Casilla (103) NIF. Si dispone de NIF se informará con el identificador del NIF de la persona o entidad que proporciona los servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas.

— Casilla (104) PAÍS DE RESIDENCIA FISCAL. Se consignará el país de residencia fiscal de la persona o entidad que proporciona servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales, de acuerdo con la relación de códigos alfabéticos de países y territorios vigentes.

— Casilla (105) IDENTIFICACIÓN EN EL PAÍS DE RESIDENCIA. Se consignará una de las siguientes opciones en función de tipo de identificación de la persona o entidad de salvaguarda:
- NIF-IVA
- Pasaporte
- Documento oficial de identificación expedido por el país o territorio de residencia
- Certificado de residencia
- Otro documento probatorio

— Casilla (106) NÚMERO DE IDENTIFICACIÓN EN EL PAÍS DE RESIDENCIA. Se consignará el número de identificación del país de residencia.

**DOMICILIO ENTIDAD SALVAGUARDA**

— Casilla (110) PAÍS DEL DOMICILIO: Se consignará el país en el que se encuentra el domicilio de la persona o entidad que proporciona servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales, de acuerdo con la relación de códigos alfabéticos de países y territorios vigentes.

— Casilla (111) MUNICIPIO: Se consignará el nombre del municipio en el que se encuentra el domicilio de la persona o entidad que proporciona servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales.

— Casilla (112) NOMBRE VÍA PÚBLICA: Se consignará el nombre de la vía pública del domicilio de la persona o entidad que proporciona servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales.

2/4

— (113) laukia NUMERAZIOA: Hirugarrenen izenean gako kriptografiko pribatuak babesteko eta txanpon birtualak mantendu, biltegiratu eta transferitzeko zerbitzuak ematen dituen pertsonaren edo erakundearen helbidearen bide publikoaren zenbakia.
— (114) laukia POSTA KODEA. Bizilekuari dagokion posta kodea adierazi behar da.
— (115) laukia OSAGARRIA. Hala badagokio, bizilekua erabat identifikatzeko beharrezkoak diren datu gehigarriak adierazi behar dira lauki honetan.

**GAKO PUBLIKOAREN IDENTIFIKAZIOA**

— (120) laukia GAKO PUBLIKOAREN IDENTIFIKAZIOA. Gako publikoa edo helbide publikoa edo, hala badagokio, gako publikoak adieraziko da, aitorpeneko moneta birtualari lotuta eta jakinarazitako moneta birtuala dagoen aitortzailearen diru zorro elektronikoa identifikatzen duena.

**GAINERAKO DATUAK**

— (121) laukia TXANPON BIRTUAL MOTA. Atzerrian kokatutako moneta birtual mota adieraziko da, "Gako publikoaren identifikazioa" laukian jakinarazitako gako edo helbide publikoan gordailatua.
— (122) laukia HASIERAKO TXANPON KOPURUA. Urte hasieran gako publikoan gordailutu den eta, aldi berean, atzerrian dagoen moneta birtual bakoitzerako unitate kopurua adieraziko da, eta, halakorik ezean, diru zorro elektronikoan gordailua egiten den lehen egunekoa.
— (123) laukia JASOTAKO TXANPON KOPURUA. Aitortutako gako publikoan gordailutu den eta, aldi berean, atzerrian dagoen moneta birtual mota bakoitzerako urtean zehar jaso diren unitateen guztizko kopurua.
— (124) laukia BIDALITAKO TXANPON KOPURUA. Aitortutako gako publikoan gordailutu den eta, aldi berean, atzerrian dagoen moneta birtual mota bakoitzerako urtean zehar bidali diren unitateen guztizko kopurua adieraziko da.
— (125) laukia AMAIERAKO TXANPON KOPURUA. Aitortutako gako publikoan gordailutu den eta, aldi berean, atzerrian dagoen moneta birtual mota bakoitzerako amaierako unitate kopurua adieraziko da, abenduaren 31n aitortutako saldoari dagokiona. Aitortzeko betebeharraren izaera abenduaren 31 baino lehen iraungi bada, izaera hori galdu den eguneko unitate kopuruaren berri emango da.

— (126) laukia TXANPONEN BALIOA. Aitortu den eta, aldi berean, atzerrian dagoen moneta birtualaren unitatearen balorazioa eurotan adieraziko da. Balorazio hori egiteko, negoziazio plataforma nagusiek abenduaren 31n eskaintzen duten batez besteko kotizazioa hartuko da kontuan, edo, bestela, normalean erabiltzen diren balorazio mekanismoak erabiliko dira, abenduaren 31n moneta birtualak merkatuan duen balioaren arrazoizko zenbatespena egiteko, eurotan.

— (127) laukia BALIOAREN KOTIZAZIOA. Lauki honetan, aurreko laukian adierazitako moneta birtual aitortuaren unitatea eurotan baloratzeko erabilitako kotizazioa edo balioa adieraziko da.
— (128) laukia BALDINTZAREN AMAIERA DATA. Abenduaren 31n aitortzaileak jada ez badu titular, baimendu edo onuradun izaera, lauki horretan adierazi beharko du izaera hori noiz galduko duen. Data hori nahitaezkoa izango da, baldin eta "Moneta birtualaren jatorria" laukiko aukerak "C" balioa hartzen badu.
— (129) laukia TXANPON SALDO BIRTUALA Aitortutako gako publikoan sartuta dauden mota bereko txanpon birtualen (atzerrian kokatuak) saldoa, abenduaren 31n. Aitortzeko betebeharraren izaera abenduaren 31 baino lehen iraungi bada, izaera hori galdu den eguneko saldoaren berri emango da.

— Casilla (113) NUMERACIÓN: Se consignará el número de la vía pública en la que se encuentra el domicilio de la persona o entidad que proporciona servicios para salvaguardar las claves criptográficas privadas en nombre de terceros, para mantener, almacenar y transferir monedas virtuales.
— Casilla (114) CÓDIGO POSTAL: Se consignará el código postal referido al domicilio.
— Casilla (115) COMPLEMENTO: En su caso, se harán constar en esta posición los datos adicionales que resulten necesarios para la completa identificación del domicilio.

**IDENTIFICACIÓN CLAVE PÚBLICA**

— Casilla (120) IDENTIFICACIÓN CLAVE PÚBLICA. Se consignará la clave pública o dirección pública o, en su caso, claves públicas, vinculada a la moneda virtual objeto de declaración y que identifica el monedero electrónico del declarante en el que se encuentra la moneda virtual informada.

**RESTO DE DATOS**

— Casilla (121) TIPO MONEDA VIRTUAL. Se consignará el tipo de moneda virtual situada en el extranjero depositada en la clave o dirección pública informada en el campo "Identificación clave pública".
— Casilla (122) NÚMERO MONEDAS INICIO: Se consignará el número de unidades para cada tipo de moneda virtual situada en el extranjero depositada en la clave pública declarada a comienzo de año o en su defecto en la primera fecha en la que se depositen en el monedero electrónico
— Casilla (123) NÚMERO DE MONEDAS RECIBIDAS. Se consignará el número total de unidades que, para cada tipo de moneda virtual situada en el extranjero, depositada en la clave pública declarada, han sido recibidas durante el año.
— Casilla (124) NÚMERO DE MONEDAS ENVIADAS. Se consignará el número total de unidades que, para cada tipo de moneda virtual situada en el extranjero, depositada en la clave pública declarada, han sido enviadas durante el año.
— Casilla (125) NÚMERO DE MONEDAS FINAL. Se consignará el número de unidades finales para cada tipo de moneda virtual situada en el extranjero depositada en la clave pública declarada correspondientes al saldo declarado a 31 de diciembre. Si la condición del obligado a declarar se hubiera extinguido antes del 31 de diciembre se informará del número de unidades correspondientes al día de la pérdida de dicha condición.
— Casilla (126) VALOR DE MONEDAS. Se consignará la valoración de la unidad de la moneda virtual declarada situada en el extranjero en euros. Para efectuar esta valoración se tomará la cotización media a 31 de diciembre que ofrezcan las principales plataformas de negociación o, en su defecto, se utilizarán los mecanismos comúnmente utilizados de valoración que proporcione una estimación razonable del valor de mercado en euros de la moneda virtual a 31 de diciembre.
— Casilla (127) COTIZACIÓN VALOR. Se consignará la cotización o valor utilizado para efectuar la valoración de la unidad de moneda virtual declarada en euros indicada en la casilla anterior.
— Casilla (128) FECHA FIN CONDICIÓN. En caso de que a 31 de diciembre el/la declarante ya no tenga la condición de titular, autorizado/a o beneficiario/a, deberá consignar en esta casilla la fecha de la pérdida de tal condición. Esta fecha será obligatoria si la clave de la casilla "Origen moneda virtual" toma el valor "C".
— Casilla (129) SALDO MONEDAS VIRTUALES. Se consignará el saldo a 31 de diciembre de las monedas virtuales del mismo tipo situadas en el extranjero incluidas en la clave pública declarada. Si la condición de obligado/a a declarar se hubiera extinguido antes del 31 de diciembre se informará del saldo correspondiente al día de la pérdida de dicha condición.

3/4

— (130) laukia ERREGISTRO DATA. ATzerriko moneta birtualen titular, onuradun edo baimendu aitortzaileen plataformako hasierako erregistro data adieraziko da.
— (131) laukia TXANPON BIRTUALAREN JATORRIA. "Txanpon birtualaren jatorria" ondoko aukera alfabetiko hauen arabera adieraziko da.
- "A" Lehenengo aldiz aitortzen den txanpon birtuala.
- "M" Aurreko ekitaldietan jada aitortu den txanpon birtuala.
- "C" Titulartasuna iraungi delako, baimena edo erabiltzeko ahalmena ezeztatu delako edo haren gaineko beste edozein eratako benetako titulartasuna iraungi delako aitortzen den txanpon birtuala.

**AURKEZTEKO EPEA**

Aitortutako urtearen hurrengoko urtarrila eta martxoa bitartean aurkeztuko da 721 eredua.

— Casilla (130) FECHA REGISTRO: Se consignará la fecha de registro inicial en la plataforma del/de la declarante titular, beneficiario/a o autorizado/a de monedas virtuales en el extranjero.
— Casilla (131) ORIGEN MONEDA VIRTUAL: Se indicará el origen de la moneda virtual. Se consignará una de las siguientes claves en función del origen de la moneda virtual
- "A" Moneda virtual declarada por primera vez.
- "M" Moneda virtual ya declarada en ejercicios anteriores.
- "C" Moneda virtual que se declara porque se extingue la titularidad, se revoca la autorización o poder de disposición o se extingue cualquier otra titularidad real.

**PLAZO DE PRESENTACIÓN**

La presentación del modelo 721 se realizará durante los meses de enero a marzo del año siguiente al que se refiera la declaración.

4/4



Firmante: CN=ZERBITZU OROKORREN ZUZENDARITZA - DIRECCION SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=SELLO ELECTRONICO, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-P0100000I, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA / DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 211865
Fecha de firma: 2024.02.07 06:42:18 Z